

@nerearrien

hirutber



n a r r a t i b a

erein

HIRUTTER

Narratiba, 107

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezka kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2017ko azaroan

Azalaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Nerea Arrien

© EREIN. Donostia 2017

ISBN: 978-84-9109-233-9

L. G.: SS-1154/2017

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Nerea Arrien

HIRUTTER



Leireri,

*Kandelak itzaltzen eta urteak erretzen jarraitzen duzu.
Beti, egun bat lehenago.
Badakigu bizitzak bost minutu dirauela.*

Zigor eta Norari,

“La vida es eterna en cinco minutos”.
Victor JARA

Sare sozialak pertsonen kontrako minaz jositako su-zelaiak dira.
Horra hor paradoxa:
Pertsonen kontrakoak eta sozialak.

BIDEOA

MARTIN

Hogeigarren segundoan konturatu naiz zeu zarela.

Lehenago, kantoï bat, itzal bi eta angelu zuzenaren barruan gorputzak harrapatuta.

Haragi zati bik egiten duten zutabe bat gero, isiltasun zikin bat eta orbana.

Pause.

Atzerantz.

Haragi zati bik egiten duten zutabe bat, 100 pultsazio minutuko, isiltasun zikinago bat, 200 pultsazio eta orbana. Lepoan.

Pause.

Zure orbana.

Zure lepoan.

Hogeigarren segundoan.

Play.

Parpaila beltzeko zure kuleroak. Titiz betetako haren eskuak. Whatsappetik bideo hau bidali duten berberak. Itzallak lurrean. Zu haien azpian. Eta argia ostu dizun hori bion gainean. Lurperatzen zaituen itzalezko alfonbra zapaltzen.

Zu maitekor bat, *zu* pornografiko bat. Berarekin, berarekin, berarekin larrutan egiten duen *zuek* jasanezin bat. *Niretzat.*

Maite dudan neska. Mugikorraren pantailan. Hormaren kontra mantentzen zaituen horrek bidali berri didan bideo honetan. Sakaka, amorruez, horma bota arte. Mugikorrean sartu zaituenetik, zure etxeko hormak erori direlako. Ez naiz ni zirrikitu batetik begiratzeko dizuna. Zeu zara kale erdian jarri zaituztena, hanka tartetik lerdea dariola.

Maximoa zarela esan dizu minimoa den horrek. Denok entzun dezakegu, Whatsappa aplikadorea baino botere-
tsuagoa delako.

Zugatik errukia sentitu beharko nuke, baina ezin dut. Mendekuak itsututa nauka.

Eta gauza nirekin joango ez balitz bezala, Izugarria Gari erantzun diot webcam barruan bahitu zaituen horri.

Auskalo zeren truke libre utziko zaituen.

GARI

Bizitza paralelo bi daramatzat. *Off line* eta *On line*.

On jartzen nau batek; *gustuko dut* asko dituenean, ordenagailua txioka aritzen denean edo bihotz digitalak nonahi agertzen direnean. Bost axola zaizkit, ordea, txorien kantua, bizilagunen emotikono aurpegiak edo nire maitaleen bihotzak. Azken hauek *Off* jartzen nautela esango nukeelako.

Noiztik naizen holakoa? Auskalo.

Betidunik, esango nuke. Txikitatik izan dut pixka bat zitaltzat neure burua. Orduan ere, betiko jakin nahi zikin hori. Zer ote zegoen andereñoaren gona azpian? Aitak eta

amak gure aurrean izaten ez zituzten elkarrizketa horietan?
Horma atzeko zirrikituetan?

Geroago, etxe aurreko leihoetan. Hiria itzaltzen zenean, pizten ziren laukizuzenezko argietan. Lau ertzen artean, ni-reak ez ziren bizitzak gordetzen zituztenak. Logelako argia itzalita, etengailua *Off* jarrita. Neure bizitza itzaltzen nuela konturatu barik, bizitza haiek miresten nituen. *Printze txikiaren* azeria bezala, erritualzale bihurtu nintzen. Maniatikoa. Eta gaua hamarretarako baldin bazetorren, bederatzietatik aurrera, zoriontsu izaten hasten nintzen. Hamabiak, ordu bat. . . azken laukizuzena hiltzen zen arte.

Hortxe ikusi zintudan behin.

Laukizuzen horietako baten barruan.

Muxuka.

Martinekin.

Aspaldiko lagunarekin, auzokoa.

Gortinak erretzen zitzaizkizuen muxu bakoitzean. Leiho-etako argien piromano honi, pospolo pare bat erretzeko gogo pizten zitzaion; nabarmenegia geratzen baitzen, Martinen leihoko argia eta nire gelako iluna.

Haren bizia eta nire heriotza.

On bera, *Off* ni.

Ez dakit nola izan zen zehazki, baina etengailuaren posizioa aldatzeko gogo bizia piztu zenuen nigan. Eta oraindik ez zait amaturu.

Horregatik bidali nion Martini bideoa. Begira zegoena bera izan zedin.

Gau batean, laukizuzena itzali egin zen.

Eta hurrengoan.

Eta ondorengoan.

Martinen etengailua nirea bezala jarri zen.

Orduantxe hasi nintzela digitalizatzen uste dut, 0 eta 1 bidezko sistema binomialaz arrazoitzen. Itzalitako leiho hori, ordenagailuan pizteko edo.

On line bizi berri hau, zeuri zor dizut. Zure arrastoa sare sozialetan aurkitzeko amorruari. Txioka goizez edo saguaren atzetik gaeuz, txoria edo katua izan gabe. Zein espezietakoa nintzen ahaztu nuen arte.

Beharbada, horregatik bilakatu nintzen digital, gizaki iza-teari uko egiteko.

INES

Hanka luzeak ditut eta titi ederrak eta lastoaren antzeko ile horia eta *eta* luze horren kalterako ezer gutxi egiterik daukan arima oker bat. Barruan daukazunak edertzen zaituela esaten dutenen kontra. Eta azkarra ere, banaiz. Ez dakit zergatik kontatzen dizudan hau, baina azken ñabardura azpimarratzea ezinbestekoa egiten zait.

Beti.

Beharbada, hain azkarra ez naizelako, auskalo, benetan azkarra izango banintz, azalpen hauen beharrik izango ez nukelako. Gauza da, nire bizitza guztia azalpen honen luzapen bat dela. Ingeniaritzako ikasketa txoroak, guztiek horretarako gai nintzela ikus zezaten egin nituen, adibidez. Nik neuk

nahiago nuen modelo edo aktore izan, baina azalpen horren beharrak nire bizitzaren norabidea zuzendu du.

Zuzendu edo okertu.

Gauza da, aspertu egiten naizela planoz betetako mahai baten aurrean, egunero, bederatzietatik bostak arte.

Martin bera, azalpenaren parte baino ez zen izan. Intelektuala, politikoki zuzena, konprometitua... Berarekin ateratzea, betaurrekoak jartzea bezalakoak izan zen. Intere-santea eta jantzia sentitzen nintzen haren ondoan. Txekoslovakiar pelikula horiek ikusten dituztenetariko bat, nahiz eta arratsaldero, telebistako kuxkuxero guztien berriekin bete barruko zuloa. Azalpen erosoak zen beraren ondoan joatea, ingeniari-tza ikasketa luzeak baino errazagoa, behintzat.

Baina Martinek, bere poesia liburu eta guzti, inoiz ez zien nire kafezko begiei erreparatu. Martinentzat ederra bainintzen, beste asko bezala, azkarra ere bai, hainbat eta hainbat-ten antzera. Kafezko begiak, ordea, bakarrak ziren. Eta nik bakarra izateko beharra nuen. Betidanik neure burua gutxi maite izan dudalako.

Batzuetan, maitasuna auto-estimu kontua dela pentsatzen dut. Zeure burua maitatzeko era, beste baten bihotzean aurkitzea. Azken finean, zu zeu maitatzea beste norbait erabiliz. Eta kontu hauek pentsatzen ditudanean gogora dator-akit zein makiavelikoa, zein manipulatzaila eta zein *neu neu neu* zalea naizen. Eta horrelakoa naizela di-da batean baieztatzen dut, gutxi axola zaidalako horrelakoa izatea.

Gariri bezala.

Bere futbolari itxura horrekin. Semaforoak gorrian pasatuz hiritartasunari popatik ematen genionean. Zitalak, putreak eta zoriontsuak ginenean.

Hark esan zidan estreinakoz, kafezko begiak nituela. Begiratu eta gauak lo hartu ezinik igarotzen zituela kafeinaren kafeinaz. Banekien gezurra zela, inork ez baitu metaforadun gaubeilarik egiten, are gutxiago Gari bezalako txori batetik. Baina niretzat, Gariren hitzak, kafe horretan eroritako azukre koxkorrak bezalakoak ziren. Begirada gozotu zizkidatenak.

Kafean azukrea urtzeko ahaleginean, bizitza zurrumbilo barruan sartu zitzaidan. Ez nuen inolako koilararik aurkitu espiral horiek gelditzeko. Mingotsegia kafea, eta goxoegia azukrea. Eta ez zegoen esnerik, ezta behirik ere, horien kontzentrazioa arintzeko.

PROFILAK 1

MARTIN

Martin Lasa



Kimikaria eta poeta



EHUn ikasia



House doktorea bihotzeko kontuetan



Termodinamikataliteratura.blogspot.com



Lagunak 1006

GARI

Gari Mateo



Mekanikoa eta futbolaria denbora librean



Kaleko unibertsitatean ikasia



Suzuki Vanvan laranja



Lagunak 806

INES

Ines

Zer esan nahi du, zure burutxo horren irribarreak? 😊
Digitalizatuta bidali didazun emozioak?

HARRAPAKINA

MARTIN

Zeruan zoologiko bat egon behar du, derrigorrez. Hara joan baitira zure zaldi basati guztiak eta lehoiak eta tigreak. Denak hil dituzu. Bideo honetan, txakur otzandu bat baino ez zarelako. Duintasun eskalea.

Nirekin ez zinen horrelakoa.

Ikusi orduko, entzun egiten zintudan. Zure apatx ta-koidunak kalean gora, trostan. Gure auzo hau, *Far west* bilakatur. Indioen geziak nonahi eta nola ez, nire bihotzean. Lehoiaren ilaje hura, eta alde egitean, isiltasuna. Auzoko desertuko otsoen uluak eta bakardadearen lastozko bolak, kalean behera bueltaka.

Claudia Cardinale edo Candice Bergen. Hori zinen zu. Ni, berriz, Woody Allen kikildu bat. Akonplejatu bat. Intelektual itxurak egiten, hankak dar-dar jartzen zenizkidan bakoitzean.

Bazegoen orduan zubi bat nire bihotzaren eta buruaren artean. Herdoilez betea, mengela. Hor ibiltzen zinen. Trostan. Zubia apurtzeko konturik gabe. Batzuetan, odolean bidaiatur, globulu gorri guztietako oxigenoari lekua kenduz. Arnasestua sortzen zenidan, edozein maiteminduk legez. Besteetan, zubiaren beste aldeko neuronetan sartzen zinen, serotonina, dopamina eta plazera sortzen duten hormona

horiek guztiek bezala. Eta arrazoiaren bidez gozatzen zintudan. Irudimenaz.

Baina gaur, parpaila beltzeko kulero horiek nire mugikor barruan ikustean, zubia apurtu dela sentitu dut. Eta behazunera erori zara. Bilisarekin nahastuz.

Mingotsa zara orain.

Kolera sortzailea.

Hala ere, gauzak ez direla gehiegi aldatu konturatu naiz.

Gure erlazio endogamiko hau. Hirurona, esan nahi dut. Zu, Gari eta ni. Txikitatik izan gara auzokideak. Gari eta biok, lagunak. Zure ezagunak. Hatz luzea erakutsiko nioke hirukia perfektua dela esan zuenari. Nola batu ditzaketen aldeek erpin hain ezberdinak, galdetzen diot neure buruari, behin eta berriz. Gari eta zu kale katuak izan zarete beti. Katamak alde egin zizuen gaztetxo zinetelarik. Gauzak jakin egiten dira auzo txikietan, eta entzutetsua izan zen zure amak zure aita laga zuelako berri hura. Garirena, berriz, gordina-go: istripuz galdu zituen guraso biak, eta izeba-osabak egin ziren haren kargu. Ni, berriz, oilanda baten semea naiz. Arrautzak errun eta errun egiten dituzten horietako batena. Gonapetik seme-alabak atera ezin dituen lumaz betetako amatxo bero baten semea. Txita bat ni, beraz.

Espezie oso ezberdinak dira oiloak eta katuak. Lehenengoak erraz kikiltzekoak, eta bigarrenak, harramazka egitekoak.

Eta bizi naiz, kikilduta, zuen erpeetatik alde egin ezinik.

GARI

Izugarria, Gari.

Erantzun dit Martinek.

Izugarria zer? Zure ipurdia? Larrua nola jotzen dugun? Izugarri ona? Izugarrizko hondamendia? Apokalipsia? Irailak 11? Irujoren garaipena?

Izugarria dio, potroak jaten dagoen bitartean. Ziniko halakoa.

Hala ere, ez zait berria egiten bere erreakzioa. Zinismoak lohitu du betidanik bion adiskidetasuna eta. Gaztetxotako futbol partidu haietaz gogoratzen naiz. Galtzen zuen bakoi-tzean, zorionak ematera etortzen zitzaidan. “Eskerrik asko”, erantzuten nion “osti bat eman nahi dizut” politikoki zuzena esaten zidan mutikoari. Eta zelako gogoia neukan garai hartan ostika ibiltzeko! Gurasoen heriotzaren amorruagatik edo.

Orain, ordea, mugikorraren bidez erantzungo diot. Eta ez du ikusiko nire pepelerdo inozoaren aurpegia. Gustuko ez duena ezkututzen ez dakiena. Ezkutatu ezin dena erakutsiz, galtzen baintuen futboleant irabazitakoak. Badaukate abantailarik teknologia berriek.

Emotikono bidezko erantzun bat. Ez edonolakoa. Izatez, aukerak egiten ikasi dut sare sozialen mundu honetan. Lehenago, edonolako txorakeriak partekatzen nituen Facebook, Twitter edo Whatsapp bidez. Txisteak, argazki eskatologikoak, kirol arloko berriak. Edozeini eta edonolako inuzentekeriari ematen nion *atsegin dut* bat.

Zu, Martinen leihoan galdu zintudan arte.


Egun batean, zure arrastoari segika, Facebooken aurkitu zintudan. Eta ordenagailuaren pantaila beste leiho bat bilakatu zen. Eta poemak partekatzen nituen. Edo pelikuletako aipuak. Eta sarean erori zinen.

Sare sozialean eta neurean.

Orduan, berrehun *atsegin dut* jasotzen banituen, zeurean bakarrik erreparatzen nuen. Konpultsiboki, ordenagailua begiratzuz edo mugikorreko soinuarekin aztoratuz. Geroago findu genuen komunikazio digital hotza. Pixka bat berotu. Zuretzako ziren esaldiak, *bai baina ez* horrekin moztortuz. Niretzako ziren *atsegin dut* edo bihotz digitaletan, ulertu duenaren, *bai baina ez* hori, imajinatuz. Oraindik ez neukan zure mugikorraren zenbakia, oraindik ez genuen Whatsappik erabiltzen. Azken honek hurbiltasun maila bat eskatzen baitu eta gu biok, oraindik, Internet handian galdurik geunden maitaleak ginen.

Facebooka bihurtu zen gure iparrorratz.

Beraz, inork baino hobeto dakizu zuk sareetan jartzen dudana ondo aztertzen dudala. Are gehiago Martin bezalako ziniko bati jartzen diodana.

Bihotz bat, aramusarea eta eliza.  Badoaz emotikonoak.

“Izugarria, Gari” erantzungo al du? Ala bere oilobusti ipurditik, kaka aterako zaio zurekin ezkontzeko dudan asmo hau ezagutzean?

INES

Martini agur esatea erraza izan zen.

“Horrela dira gauzak”, erantzun zuen, barrutik urtzen bazegoen ere. Ni, ordea, poztu egin nintzen. Eta ez zen izan “horrela dira gauzak” erraz batekin ihes egiten utzi ninduelako, barrutik negarrez zegoelako baizik.

Nola azaldu neure buru zoro honen gorabeherak? Esan nahi dut sutan jartzen nauela barrutik apurtuta dagoen norbaitek “horrela dira gauzak” diplomatiko bat esateak. Merezi zuela sufrimendua horren faltsua izateagatik. Eta horrela diotsut, gordin, mozorrotzeko berba gutxi erabiliz. Beharbada, horregatik nago diban honen gainean, buruak konpontzen dituen bati –zuri, esan nahi dut– nire psikopatiarako joera erakusten. Eta onartzen dakidalako, psikopatia arrunta, azken finean, psikopatia dela. Ni zoro, zu zoro, denok zoro. Ez dute hau denek onartzen. Nik, behintzat, inoiz ez ditut nire erpeak ezkutatu.

Eta horrela izan zen. Agur esan eta ileari kolpe bat eman ez hegan atera nintzen. Beti izan ditut lumak iletzar honetan, auskalo, beharbada horregatik. Txoriarenak badauka bere hori, nire bizitzan, lehenengoz, ez nintzelako putre sentitu. Ezta elai edo txantxangorria bezalako txori erromantiko bat ere. Ez. Arrano bat nintzen. Zerutik lurtean dabilena begiztatzen duena, bere harrapakina aukeratzen duen arte.

Gari aukeratu nuen.

Hantxe zegoen, nire askatasun gosea asetzeko zain. Badakizu, Martini agur esatea, betaurreko haiek kentzea bezalakoa izan zen. Ez naiz intelektuala esatea bezala. Ez ditut

ingeniariak gogoko, ezta planoak eta elkarrizketa filosofikoak ere. Holako zerbait zen orduan niretzat askatasuna. Moto-
rrean norbaiti helduta ziztu bizian ibiltzea. Dirua gatatzea.
Ispiluari polita naizela esatea, inolako lotsarik gabe. Naizen
kaskarin hori, nolabait kanporatzea.

Kaskarina eta gaiztoa.

Ni, gaiztoa ere, banaizelako.

Gari bezala.

Eta biok gaizto izateak halako erosotasun magiko bat
ematen zigun. Batak besteari konplexurik ez sortzearena
edo. Martinekin gertatzen ez zitzaidana.

Ederra zen harrapakina. Gihar sano haiek. Barre gangar
burlatia. Txupatu eta txupatu egiten nuen, hezurak bistan
utzi arte. Hezur haietan, haurtzaroak utzi zizkigun minak kal-
tziotan disolbatuak ikustean, lur azpian gordetzen nituen. Eta
haragi eder hori liseritzean, gaiztakeriari ateratzen genion ete-
kina sentitzen nuen. Bizitzari burla eginez. Gauak luzatuz eta
lan orduak laburtuz, medikuari eginiko iruzurrei esker, lor-
tutako baja faltsuekin.

Eta geroko postre goxo haiek. Facebooken eskegitako ar-
gazkiak. Kafearen gainean aparrarekin eginiko bihotzak,
Faye Dunaway eta Warren Beatty-ren musuak, Brasileko
hondartzak, diamantezko eraztunak...

Eta postrea errepikatzea. *Atsegin dut* batere ez kasual ha-
rekin. Noiz, nola eta non ondo aztertu baten emaitza. Ba-
nekielako holako baten atzetik, Messengerraren atea irekiko
zela, eta ondoren, Gariren etxekoa.

Gutxika, harrapakina harrapari bihurtuz.